

# ataria

2022-01-14 • 1.535. zenbakia  
107.6 fm • Ataria.eus

## Iker Galartza, barre algaren pizgarri





10-17

# AURKIBIDEA

**Iritzia** Beatriz Rubio **3**

**Erreportajea** Eskualdeko kobazuloak zabortegi bihurturik **4-7**

**Xiberutik** Aitor Atxega **8-9**

**Asteko Gaia** Iker Galartza umorea iturri eta helburu **10-17**

**Begirada Grafikoa** Beñat Iraola **18**

**Iritzia** Alex Padilla **20**

**Iritzia** Olatz Peñagarikano **21**

**Olerkia** Karlos Linazasoro **22**

**Bertsoa** Oibar Olano **23**

**Elkarrizketa** Mikel Azpiroz pianoarekin mintzo **26-28**



26-28



21



**Azaleko irudia**  
Josu Artutxa Dorronsoro

# ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85€

bai ezbatze eta lana eskarria

30kain

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**ARGITARATZAILEA:** Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95  
**KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46  
**WEBGUNEA:** ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM  
**PUBLIZITATEA:** 661 678 818 • publi@ataria.eus

**Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:**



Tolosaldeko gizarte eragileak

**TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:**

**Udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altoz, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



Gipuzkoako Foru Aldundia



**BEATRIZ RUBIO  
PERALES**  
IRAKASLEA

# ‘Ante Doctrinam’...

**E**skolan ikasleei argudiatzen irakasten (omen) diegu. Argudiaketaren ezaugarriak eta helburua, egitura eta baliabide linguistikoak lantzen ditugu. Ikasleek ez dute izaten argudio-testua beste testu mota batzuetatik bereizteko zailtasunik; tesia, argudioak eta kontra-argudioak identifikatzen dituzte. Ez dago arazo gaindiezinik argudio-testu bat idatzi behar duten arte. Orri zuriak iristen dira, boligrafoak altxatuta, irakasleari etengabeko deiak, hasperenak (eta arrantzaren bat). Ikasle asko ez dira beraien iritzia garatzeko gai; hausnarketa pertsonal gutxi egiten dute eta inguruko munduarekiko interes gutxi daukate. Beste askok ez dakite nola argudiatu: komunikazio- eta bizikidetzeta-maila oso txikia erakusten dute eta eztabaidatzeko ezintasunaren aurrean, inposizioa ezartzen saiatzen dira. Gure ikasleak herritar kritikoak izan daitezela nahi dugu, gizarte justuagoa, bidezkoagoa eta parekideagoa eraikitzen lagun dezaten (hala jasotzen dute hezkuntza-curriculum guztiek), eta, hala ere, gure ikasleek hutsune handia dute argudioak eraikitzeko konpetentzian. Baina era berean, irakasleok gurekin bat ez datozen ikasleak kontestatario, errebelde eta diziplinagabeen kategoriara igarotzen ditugu.

Bizi garen gizarteak, komunikabideek eta abarrek programatu egiten gaituzte, kritikoak izan ezean sumisoak izan gaitezen. Baina baldintzapen sozialaren diskurtsoak ez du balio gure erabakitzeke ahalmena, erantzukizuna, autonomia eta arrazoitzeko gaitasuna zurtzeko.

Nire gaitasun kritikoei buruzko hausnarketa egiten saiatu naiz. Irakurtzen dut, asko, azkenaldian idazle

emakumeak (Rachel Cusk eta Vivian Gornick gomentatzen dizkizuet). Irratia entzuten dut (Pilar Goya eta Maite Artola, mundialak). Prentsa begizatzen dut (*online*, baina azkenaldian murrizketekin). Zutabegile handiak jarraitzen ditut (ez galdu Karmele Jaio). Eguzker Twitterreko txioei arreta jartzen diet (Mikel Ayes-taran, Ane Irazabal, Mikel Garcia, Arantxi Padilla *-home made-*). Lagunekin eztabaidatzen dut (politikak beti eman du joko handia herri honetan, baina orain birusa nagusitu da). Honaino perfektua. Autozaplada bizkarrean.

**Baina pentsatzen ari naiz auto-baieztapenaren eta nire tribuko kide izatearen auto-engainuan erori naizela: ez dut Cayetana irakurtzen, ez dut Herrera entzuten, ez dut ‘ABC’ jarraitzen...**

Baina pentsatzen ari naiz auto-baieztapenaren eta nire tribuko kide izatearen auto-engainuan erori naizela: ez dut Cayetana irakurtzen, ez dut Herrera entzuten, ez dut *ABC* jarraitzen, ezin dut De Pradarekin eta nire lagunak, ia denak, dira erdi-mailako soldatapeko berrogeitaka urteko zuriak, etxea jabetzan dutenak, kotxedunak, bizikletadunak, Olentzero eta Erregedunak... *Ante doctrinam, studeo...*

Zaborrak kobazuloetan eta leizeetan zein eragin duen jakiteko ikus-entzunezko lana egiten ari da 'Tolosaldeko Ataria'.

# KOBAZULOAK ETA ZABORRA

**Asier Imaz**

**E**skualdeko hainbat kobazulo zabortege bilakatuta daude. Hori erakusteko, eta horrek zer eragiten duen jakiteko, dokumental bat egiten ari da **TOLOSALDEKO ATARIA**. Kobazulo horietako bat ikustera Pako Etxeberria Aranzadiko kidearekin joan gara. Lekuan bertan, ikusten ari dena sinistu ezinik geratu da mediku, antropologo eta irakaslea. «Pena izugarria sortzen dit honek. Isurbide edo sarbegi garrantzitsu batean gaude. Arro handi batetik etortzen da ura hona. Sarbegiak hori esan nahi du, ura hona bideratzen dela eta hemendik sartzen dela lurrera. Kare-haitzarekin topatzen da ur hori, eta infiltratu ondoren galeria bat sortzen du. Honek jarraipena dauka, beraz. Kontua da, inork aurki lezakeen zerrikeria gehien hemen dagoela. Zabortege bat da; lehen herrien kanpoan egoten zirenen parekoa. Gaur egun, herrien kanpoan hau pentsaezina da, ez da onartzen. Beraz, galdera hori da: zergatik hemen bai?».



Zabor artean urrats bat gehiago eta «plastikoak dira hauek, zer egongo ote da barruan?» galdetzen du Etxeberriak. Ondoren, gora eta behera begiratu eta kobazuloaren inguruan hitz egiten du: «Hor goitik dator ura, ikusten ari garen guzti honek erasan eta mendi barruan sartzen da. Ondoren, nonbait, iturriren batetik aterako da. Norbait ur hori erabiltzen ari da, hornikuntzarako edo edateko. Nire ustez, agintariak ez dira hau gertatzen ari denaren jakitun. Arazo hau konpontzeko estrategia bat beharko litzateke... Begirara horra! Olio bidoiak dira

horiek. Gogoia eduki behar da honaino etorri eta denetik botatzeko. Zabortege bat da, hau zabortege bat da. Gurdi bat bakarrik egongo balitz, ingurukoren batek gertutasunagatik bota duena, baina telebistak, hozkailua, plastikoak, bidoiak, animaliak... hori adibidez behiarena da. Hemendik pasatzen da ura, eta hor behean sartzen da berriro lur azpian, hamar bat metro izango dira, eta dena zaborez beteta dago. Hau izugarria da».



# «Gizakiaren eskuak eraldatu ez duen leku bakarra izan ohi da»

**PAKO ETXEBERRIA**

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

**A. I.**

Aranzadi zientzia elkarteko kidea eta mediku forentsea da Pako Etxeberría (Beasain, 1957). Kobazuloe-tan ikusitakoaren berri eman du.

**Zure esperientziatik, ohikoa al da kobazuloa eta zaborra elkarri lotuta joatea?**

Urteetan zehar, Gipuzkoan egin dugun espeleologian ohikoa izan da zaborrak aurkitzea. Leku zoragarrietan, inor pasa ez den tokiak ziruditenetan, zaborra agertzen zen. Batzuetan, produktu kimiko oso kutsakorrek aurkitu izan dira. Santutxu inguruan, adibidez, paper-fabriken isurketa handiak ezagunak izan ziren. Garrantzia kendu zienik ere izan zen: putzu bat besterik ez zela eta hor gelditzen zela. Gezurra. Urak hori iragazi egiten du, eta gero iturrietara

joaten da. Denetik ezagutu dugu, adibide industria-lak eta baita txikiagoak ere, baina hauek ere arrisku-tsuak.

**Iturrietan edo baserrietako ur deposituetan amaitzen duten kutsatzeak.**

Mendiko zulo edo leizeetan ura elkartzen joaten da, ondoren iturri edo iturburuetara jaitsiz. Baserriek hortik daukate euren ur hornikuntza, baina badira herriak ere iturburu horietatik edaten dutenak. Beraz, norbaitek zaborra bota eta hori urarekin nahasten baldin bada, gizakientzat edo animalientzat prestatuak dauden iturburuetara iritsiko da.

**Kontzientziazio kanpainarik gogoratzen al duzu gai honen inguruan?**

Kanpainaren bat edo beste egin izan da, noizbait.



Hala eta guztiz ere, kalean bizi garenontzat kanpaina ugari egiten dira, birziklapenaren inguruan eta abar. Orain badakigu, haurrek erakutsi digutelako, olio harraskatik behera ez dugula bota behar. Zentzu horretan kultura bat garatu dugula uste dut, baina landa eremuan, inor ez da ausartzen edo ez dakigu nola egin. Harrigarria iruditzen zait. Garbiguneak bezalako lekuak badaude; horretarako egin dira, baina ez, zaborra bazter guztietan botatzen jarraitzen da. Kobazuloetan, leizeetan eta batez ere sarbegietan zabor asko ikusi dugu: hildako animaliak, plastikoak..., denez. Horiek biltzea gainera ia ezinezko lana da.

**Memoria historikoari buruzko lanean, eraginik izan al du zabor mota honek?**

XX. mendeko gertaeretara joaten baldin bagara, zehazki 36ko gerrara, gorpuzki asko leizeetan aurkitu ditugu. Lurperatzeko modu erraza zen, bertara bota eta kito. Gorpuzki bat, bi edo zenbait lekutan hamar baino gehiago ere aurkitu izan ditugu. Hori harrigarria da, noski, baina baita ondoren zaborra bota izana ere. Zabor hori ez zen inguruko lurra, ez, mota guztietako

zaborra zen. Baita animaliak ere. Agian gaixo egongo ziren eta probetxuzkoak ez zirenez bertara bota ditzute. Garai modernoagoetan, plastikoak eta etxetresna elektrikoak aurkitu izan ditugu. Noski, geure buruari galdetzen genion nola den posible hori; mendian galduta dagoen leize batera, nolatan eraman du norbaitek hozkailu bat, leize batetik botatzeko. Memoria historikoarekin lotuta hori guztia bizi izan dugu, hain justu horregatik, iristea zaila den zirrikitu ilun eta sakon batek dena ezkutatzeko aukera ematen dizulako, izan gorpuzkiak edo izan zaborra.

**Leizeak eta kobazuloak zergatik dira hain garrantzitsuak?**

Guretzat ingurumenaren zati dira. Sakonera handietan oso gutxi kaltetuak izan dira, normalean. Galeria horiek paisaia naturalak dira, eta babestu egin beharra daude. Ingurumena balioan jarri behar da. Zuhaitzak eta animaliak bakarrik ez daude paisaia batean, estetika bera ere hor dago, interes handikoa dena. Paisaia hori mantentzea interesatzen zaigu, bere horretan. Zenbaitetan, lur azalean lanak egin behar izan

**IRAGARKI LABURRAK**

**LAN BILA.** Arratsaldeetarako lan bila nabil. Etxeak eta portalak garbitzeko edo adinekoak zaintzeko prest nago. Interesatuak deitu eguerdian edo gauean: 696 40 97 73.

**SALGAI.** Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko txerrikumeak salgai. Interesatuak deitu 607 668 603 zenbakira (Joxe Kruz).

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa Ataria-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.



Pako Etxeberriaren hitzak errealitate bilakatu dira azken egunetako euritearen eraginez. Ura zaborrarekin bat eginda doa kobazuloan behera. **A.I.**

ten dira, beharrezkoak, eta paisaian eragiten da. Ados. Baina gutxienez jakitun gara eta pertzepzio hori daukagu. Mendien barruan horrelako guneak daude eta ikerketa iturri dira. Ez bakarrik eraldaketarako oso sentsiblea den fauna dagoelako, aztarnategiak ere egon daitezkeelako. Milaka eta milaka urtetan errespetatu den gunea da, eta sarri, gizakiaren eskuak eraldatu ez duen leku bakarra. Kobazuloek balio hori eduki dezakete, bisita masiboekin edo elementu eraldatzaileekin kontaminatzen ez baldin baditugu.

**Aranzadik gertutik bizi duen egoera da, beraz. Alkizan, adibidez, Olatzazpiko kobazuloa auzolanean garbitu zuten, Jesus Tapia Aranzadiko arkeologoak gidatuta.**

Kontuan izan behar da Aranzadin espeleologiak tradizio handia duela. Elkarrekin beraren sorreran dago, Jesus Elozegi tolosarraren eskutik adibidez. Hauek mendira ez ziren joaten tontorra egitera soilik, edo paisaia ikustera. Gelditu behar zenean gelditu egiten ziren, eta ingurunea aztertu. Leku horiek gehienek ikusi ere ez zituzten egiten, eta hori agian ona eta guzti da. Baina dena esan behar baldin bada, espeleologian ere arduragabeak egon dira: kobazulora joan eta pintaketak egin... edo estalagmitak eta estalaktitak apurtu gero etxera eramateko. Gero interesa galtzen dutenean zarkarretara botatzeko. Ez dago horrelako ezer egin beharrik, ez dago gure mendien barnealdea horrela eraldatu beharrik.

ATARIAN jarrita Goierri eta Urola Kostako Hitza egunkarietan doan

# hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€  
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€  
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95  
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.



**AITOR ATXEGA**  
MANEX BAT

# Xiberoko Botza (I)

**U**rte berri on lehenik irakurle. Azken boladan *gure auzoko bilakatu den* horretatik asko entzun behar izan dugu halabeharrez eta ongi izango zarela esperantza badut... Gutxi gehiago oporrak bizi izan ditugu azken egun hauetan; oporrik izan ez bada ohikoa baino jai egun gehiago behar bada. Norberak berera joko genuen seguru asko eta manexak nora jo bada... Zuberoara.

Nire egunerokoan aspalditxotik du dezenteko lekua *Xiberoko Botza* irratiak. Irrati ttipia da, baliabide gutxikoa, espantu handirik ez duena... Baina ikaragarri goza daitekeena norberaren abiaduraren arabera. Ez duzu politikaririk entzungo, ez da artificio edo efektu handirik, ez da urruneko eta zuzeneko konexio handirik, ez da zozketa edota sari handirik. Aitzitik, oso-oso txikia da, gertukoa, sinplea... Alta, bada ni asko erakartzen nauen zerbait bere uhinetan. Eta zer esanik ez nik bezala euskara bizkarrezurrean txertatua daramanarentzat. Zubereraren gainean sekulako bilketa-lana eginda dago jakina, baina zuberera zuzenean, egunero eta bizi-rik entzuteko aukera bakarrene-tarikoa dela esango nuke *XB*.

Maitemin honekin jo nuen *XB*ko koordinatzailearengana galdera sorta batekin. Elkarriketa hau hurrengo artikuluan laburtuko badut ere, sarean sartu eta entzuteko gonbita egin nahi dizut gaurkoan.

Gure ohiko irratieta garran-

Gure ohiko irratieta garran ematen dira berriak sarri. [...] Argiaren abiaduran iraungitzen da zenbait kontu gaur egungo munduan.



tzia janzkeraz ematen dira berriak sarri. Hegoaldean kantari batek disko bat argitaratzen duelarik, egun berean hedabide guztiek berri hori zabaltzen dute sekulako eitearekin; biharamunean ario, desegin da... Argiaren abiaduran iraungitzen da zenbait kontu gaur egungo munduan.

Gabon aurreko bizpahiru albiste ekarriko ditut adibide gisa, esan nahi dudana argiago adierazteko.

Panpi Ladutxe eta Allande Sokarros zendu ziren; biak ala biak, bakoitza berean, sona eta izan nabarmeneko pertsonak. -Aiztondon 2017an jokatu ziren maskaradak antolatzeke lehen kontaktua izan zen Allande!-. Gure irratieta, egunean bertan, sekulako burrunba sumatu nuen; gure izate edota kulturako bi izar joan zirenaren sentsazioa barreiatzen ari zela bizi izan nuen nik. Artxibo-arakatze izu-





garri bat izan zen: hemengo eta hango elkarrizketa zatiak, telefono elkarrizketa eta doluak, famatze izugarriak... Baina hurrengo egunetik aurrera ez nuen hitzik ere entzun; jada ez dira existitzen.

*XBn* esango nuke pare bat astez albiste izan zirela iparraldeko bi pertsona hauek. Ia-ia egunero gogoratu zituzten. Eta ez zituzten bereziki gogoratu telebistako esatari ospetsuek, edo diskoetxeren bateko arduradunek, edo Euskaltzaindiko ordezkariak bakarrik. Deitzen zuten Zuberoako herrietako pertsona anonimoez, maskaradatan Allanderekin ibili zen edonork, herriko jaiak antolatzearen aitzakian Panpirekin kontakturen bat izan zuen norbaitek... Luze jarraituko nuke gisa honetako adibideak jartzen baina zera esan nahi dut: herriak behar bezala gogoratzeko azpiegitura eta nahia ipini zuen *XBk*. Irrati honen entzuleentzat ez zen izan egun bateko kontua. Benetako garrantzia eman zitzaizen heriotza hauei, benetakoa!

Musikari batek hegoaldean disko bat ateratzen duenean nahiko elkarrizketa edo berri justuak ematen direlakoan nago ni. Hedabide denek prentsa ohar bera zabaltzen dute; batzuek luzeago, besteek laburrago. Aipatzen da zenbatgarren diskoa duen, halako lekutan grabatu dela, halako lekutan nahastu dela,



ibilbideko disko helduena dela, halakok egin duela azala... *XBn*, hasteko, elkarrizketek denbora luze bat hartzen dute. Artistari galdetzen zaio haurtzaroan ze musika tresna gustatzen zitzaion, ea pintura gustatzen zaion, ea zer irakurtzen duen, zer egiten duen bere aisialdian... Pertsona hori, produktu berri bat kaleratu duen norbait baino gehiago kontsideratzen delakoan nago. San Tomas buelta zen. Joseba Tapiak *Egon edo ez egon* argitaratu berri zuen diskoaren harira elkarrizketa bat eman zen. Nik oso komunikazio-molde ezberdin bat sentitu nuen: ez zen berebiziko garrantzia ematen zitzaion elkarrizketa bat, ez zen zurruna, zirtoa nabari zen, oholtzan entzuten dugun pertsona sentitu nuen... Artista, kazetari eta entzuleak gela berean geundela zirudien. Tapiak akordeoi kromatikoa zuen eskuartean eta hitz egiten zuen bitartean jotzen ari zen. Elkarrizketatzaileak ez zituen galderak bata bestearen ondoren egiten. Aipatzen ziren Tapiak txikitan jasotako eskolak, nola ekarri duen kantu berri bat ikasle garaian ikasitako kantu baten arrastotik, trikitiak eta akordeoiak izan duten betiko kalapita...

Gonbita luzatua duzu. Entzuteko modurik egiten baduzu ea nik esandakotik sumatzen duzun. Horrela bada beharbada zaletuko zara... On egin!

# «Pailazo izatea bizitzari aurre egiteko izaera bat da»

**IKER GALARTZA**  
PAILAZOA

Behin ileorde berdea eta sudur gorria jantzi, eta han eta hemen ia 30 urtez pailazo modura aritu izan da Iker Galartza; gorabeheraz beteriko ibilbidea izan du, baina lehen emanaldiko ilusio berari esker, betidanik izandako ametsa bete eta proiektu berriak abiatu ditu, betiere, asmo berdina mantenduz: ikusleek bezain beste edo gehiago gozatzea.

## Josu Artutxa Dorronsoro

**I** rurako baserrian lotsak alde batera utzi, eta nerabezaroan, lagunekin batera, agertokietara ateratzeko beldurra galdu zuen Iker Galartzak (Amezketan, 1977). Istoria propioak idazten ditu, baina ez da gidoilaria. Tomax, Pruden, Andoitz, Peio edota Bittor bezala ezagutu arren, pertsonaia bat bera ere ez du maite Poxpolo bezain beste.

### **Iker Galartzak berak jakingo al luke bere burua deskribatzen?**

Ez dakit. Nire hiru seme-alabei askotan galdetzen diet helduak izaten direnean zer izatea gustatuko litzaikeen, baina beraiek ere ez dakite oraindik. Batek dio nik egiten dudana egitea gustatuko litzaiokeela, baina orduan ondorengoa galdetzen diot: «Eta zer da nik egiten dudana?». Askotariko esparruetan ikusten dute aita, eta oso gustuko dute hori. Nik ere oso gustuko dut horrela lan egitea. Hala ere, ez naiz aktore kontsideratzen, aktore baino pailazo modura gehiago bizi izan naizelako, eta bizipen gehiago izan ditudalako. Komediante? Akaso, baina drama egitea ere gustuko dut.

Bestetik, bote pronto handiko per-

tsona naizela esango nuke. Zenbaitetan asmatu izan dut, baina hanka sartzeak ere egin izan ditut askotan, umorea egiterako orduan beti mugan aritzen naizelako.

### **Nola gogoratzen duzu haurra zeneko Iker Galartza?**

Nire semeari begira jarri eta kalko bat ikusten dut. Ez da geldirik egoten, eta jaikitzen den unetik lokartzen denera arte, galdera ugari egiten ditu, etengabe. Beti aurkitzen du aisiarako edo jolaserako tarteren bat, eta zirkura joan eta bertan entrenatzera gonbidatuz gero, baiezkoa dio beti. Halakoa nintzen ni.

### **Gerora, pixka bat helduagoa zinenean, argi zenuen pailazo izan nahi zenuela?**

Ez. Pailazoek txoratu egiten ninduten. Ez nuen pentsatzen, ordea, horretatik bizi zitekeenik. Urte haietan, *Goenkale* edo *Bi eta bat* telesailak ikusten genituen, eta horietan aktore izateko gai sentitzen nintzen. Unibertsitatera joan nintzenean ere, neure burua ez nuen filologo, euskararen aditu edo irakasle bezala ikusten; telebista mundua eta pailazoak miresten nituen gehien.

Pailazoena, ordea, gutxi batzuen kontua zen. Gainera, Txirri, Mirri eta

«Ez naiz aktore kontsideratzen, pailazo modura gehiago bizi izan naizelako, eta bizipen gehiago izan ditudalako»



Iker Galartza, Gure Zirkua-ren karparen aurrean. **J.A.D.**

Txiribiton agertu arte, gaztelaniazko pailazoena ziren erreferentzia bakarrak. Gogoan dut, nerabea nintzenean, ikasturte amaierako jaialdietan, ileorde bat jantzi eta *Fofitoren* esketxak imitatzen nituela, Iñaki Odriozola *Mokolorekin* eta Joseba Usabiagarekin batera, eskolako haurrentzat.

**Etxean, aitarengandik jaso zenuen pailazo izateko abilezia edo gogo hori?**

Ezetz esango nuke. Lehengusuen artean, ni nintzen mutiko bakarra. Aitonaren biloba kuttuna nintzen eta berarekin joaten nintzen zirkura. Gero, Irurako gure baserrian pailazoarena egiten aritzen nintzen. Mezetatik bueltatzen ginenean, apaizarena egiten nuen.

**1995ean hasi zineten *Poxpolo* eta *Mokolo Euskal Herriko haur eta gaztetxoek bizitzak alaitzen. Nola***

**gogoratzen dituzu lehen entsegu eta emanaldi haiek?**

Oso erraza izan zen, eta aldi berean, oso ederra. Ilusioz gainezka geunden orduan. Saltsa guztietan nenbilen; begiralea nintzen aisialdi taldean, eta tarteak, aitari laguntzen nion sagardotegian. Egunak 24 ordu bazituen, nik gehiago behar izaten nituen, baina indarra, energia eta gogo nuen guztia egiteko. Zetorrena zetorrela ere, aurrera egiteko gai ikusten genuen geure burua. Bi aldiz pentsatu gabe jantzi nuen behin peluka berde hura, gerora, horrenbeste emanalditan lagundu nauena.

Beranduago, ondorengo pentsatu genuen *Mokolo*-ok, Usabiagak eta hirurok: «Gure herriko haurrei hau gustatzen bazaie, zergatik ez dugu inguruko herrietan probatzen?». Iragarkiak bidaltzen hasi, eta saio



gehiago egitea lortu genuen. Konturatzerako, festetara joateko ere deitzen gintuzten.

**Urte haietan, ikaragarri gozatuko zenuten, ziur. Baina, zerk bultzatzen zintuzten pailazo izatera?**

Batzuetan, Josebari (Usabiaga) niretzat barregariak diren bideoak erakusten dizkiodanean, aspertu egiten da. Nik gustuko dudanez, berak ere gustuko izango duela pentsatzen dut, baina beti ez da horrela; guztiok dugun gabezia bat da hori. Ekain Iburguren Gure Zirkuko kideak eta biok, aldiz, antzeko zaletasunak ditugu. 25 urte besterik ez ditu, eta askotan ohartzen naiz ni bezain *frikia* dela. Duela mende laurden ere, pailazoak gustuko nituenean, mundu guztiak gustuko zituela pentsatzen nuen. Besteak beste, horregatik erabaki nuen urrats hori ematea.

**2009an, bizitza erabat aldatuko zizun ezbeharra gertatu zen. Ordura arte zure adiskide izan zen Moko/ok agur esan zizun. Neba bat bezain beste maite zenuen. Nola gogoratzen duzu gertakari hura?**

Zer da lagun bat? Bada, zure bikoteari kontaktzen dizkiozunak baino sekretu gehiago kontaktzen dizkiozun pertsona bat, berarekin guzti-guztia partekatzen duzuna. Hori eta askoz gehiago zen Iñaki. *Pox-polo eta Mokolo* taldearen oinarria zen, sostengua. Bera hil ondoren konturatu nintzen zeinen garrantzitsua zen, ez bakarrik agertoki gainean. Berak egiten zuen ezkutuko lan guztia: azpiegiturak, kontaktuak, ordainketak, aseguruak... Lagun handi bat galtzeaz gain, taldekide handi bat galdu nuen.

Esan bezala, Iñakik eramaten zituen paper kon-

tuak; nik ez dut inoiz horretarako balio izan. «Nik pailazoarena egin nahi dut, besterik ez», pentsatzen nuen askotan, baita orain ere. Ez nekien hori ere gure ofizioaren parte zela. Beraz, gidoiak idazteaz arduratzen nintzen, eta horregatik moldatzen ginen hain ondo.

**Gainerako taldekideen babesa jaso zenuen behintzat, ezta?**

Bai, eta baita publikoarena zein Euskal Herriko nahiz nazioarteko pailazoena ere. Aurrera egin beharra zegoen, eta hala egin ge-

nuen. Oholtzara ateratzen nintzen bakoitzean, ateratze hutsagatik, publikoak txaloz hartzen ninduela ohartzen nintzen. Lehen, lñakik eta biok zatika banatzen genituen kantuak; bera hil ondoren, ordea, ez zen batere samurra izaten abesten hasi, ingurura begiratu eta ondoan ez zegoela ohartzea. Oso gogorra izaten zen, eta ikaragarri kostatu zitzaidan egoera horretara ohitzea.

Oraindik ere, antzoki ezberdinetara antzerki saioak egitera joaten naizenean, kamerinoetan nagoela, oroitzapenak etortzen zaizkit burura, horietan, lñakirekin igaro ditudalako ordu gehienak. Ispilura begiratu eta ondoan bera ikusten nuen lehen; orain, ordea, ez da bertan egoten.

**Kontuak kontu, etapa berri batekin jarraitu zenuen, 2016ko urtarrilaren 5era bitarte, Poxpolo eta konpainia izenarekin. Nolako urteak izan ziren?**

Nik ez nuen zalantzarik aurrera egingo genuela. *Poxpolo eta Mokolo* ginenean ere, *Poxpolo, Mokolo eta konpainia* ginen. Kuadrilla indartsu bat genuen ondoan, taldearen euskarria zena. Azken urte haiek bereziak izan ziren, baina ez ziren gozatzekoak izan. Ordura arteko esketx berdinak egiten saiatzen ginen, baina berehala ohartzen ginen hutsune handi bat genuela. Bizi ahal izateko, ezinbestekoa izaten da lan egitea, baina are garrantzitsuagoa da lanean gus-tura aritzea. Gure kasuan, etapa berri bat hasi bagenuen ere, urte

[Mokolo]  
«Taldearen oinarria zen, sostengua. Lagun handi bat galtzeaz gain, taldekide handi bat galdu nuen»

batzuetara konturatu ginen ez genuela aurreko urte guztietan bezain beste gozatzen, eta hobe genuela beste zerbait egitea.

**Horrela, 2017an, Gure Zirkua abiatu zenuen, euskarazko lehen zirku ibiltaria. Aire freskoa, umorea eta euskara. Beti nahi izan duzu zirku batean parte hartu, baina nola jarri zenuen martxan proiektua?**

Nerabezaroan, pailazoez liluratzeko nindutenean eta haiek imitatzen aritzen nintzenean, ez

nuen pentsatzen egunen batean horretatik bizitzeko aukera izango nuenik. lñaki hil zenean, aurreko proiektuari eutsi nahi izan genion, baina ez zen posible izan. *Poxpolo eta konpainia* taldearen azken emanaldia egin genuen gau hartan, lasai eseri, eta karpak begiratzen hasi nintzen interneten. Emazteari galdetu nion ea zer iruditzen zitzaion bat erostea. Harriduraz begiratu ninduen, baina ez zidan ezezko-rik esan, eta beraz, begiratzen jarraitu nuen. Ilusioz gainezka nengoan, autoak begiratzen ariko banintza bezala. Horrela hasi zen Gure Zirkua.

**Akaso, euskaldun kulturzale askok, eskatu ez, baina gerora eskertu duten zerbait izan da.**

«Beharrik ba al zegoen?», pentsatuko zuten kultur arloko eragile askok. Bestela ere egiten dira zirku emanaldiak hemen, eta Euskal Herrian izan dira zirku profesionalak. Guk egiten duguna gertuago dago pailazogintzatik; beste batzuek, berriz, akrobazieta-  
ra jotzen dute. Umorea egiteko beste modu bat da. Inondik inora ere ez da lehen egiten genuen pailazo saio horietako bat. Horregatik da polita Gure Zirkua,

pailazoez gain, diziplina ugari uztartzen dituelako: akrobaziak, magia, dantza, malabarrak...

**Egunetik egunera, aldakorra da bizitza, eta Gure Zirkuan ere jakin duzue aktualitatera moldatzen: funtzio, esketx eta txiste berriak sortzen dituzue. Denbora libreaz gain, buruari eragin beharra eskatzen du horrek.**

[Gure Zirkua]  
«Umorea egiteko beste modu bat da, pailazogintzatik gertuago dagoena, eta polita, diziplina ugari uztartzen dituelako»

## ASTEKO GAIA

Bai, eta askotan, horretan bakarrik pentsatzea ere bai. Lan handia eskatzen du esketxak prestatzeak eta txiste berriak asmatzeak. Autoan goazenean, Ibon Mendibilek (musikariak), mila bider ohartarazi behar izaten nau. Emanaldi bat egiten ez baldin bada, sarri beste nonbait izaten dut burua. Guztioi gertatzen zaigu hori batzuetan, baina nire kasuan, etengabea da.

Bestetik, taldeari eusten saiatzen naiz, baina ulertzen dut ez dela batere erraza, ez niretzako, ezta beiraientzako ere. Artistentzat nekagarria da astebururo proiektu honetan aritzea. Soldata duin bat atera ahal izateko, hiru egunetan bost emanaldi egitea eskatzen du. Eta ez hori bakarrik. Muntaia eta desmuntatzea ere kontutan izan beharra dago. Askotan, lekualdatzerik gabeko egunak izaten dira guretzako atsedenaldi onenak.

**Azken bi urteetan, egoerak hala behartuta, irribarreak ikusetik, sentitzera igaro zaretela diozu saio bakoitzaren amaieran. Hala izaten da?**

Bai, eta jada jakitun gara begiak pixka bat ixten di-

tuztenek horregatik ixten dituztela; gauza bera sentitzen dugu txalo egiten dutenean. Hala ere, badira besoak gurutzatuta geratu eta begirada zorrotza gaineratik kentzen ez digutenak. Guretzako zaila izaten da emanaldia eskaini bitartean horretan pentsatzea, eta esaten dugun bezala, oraindik ez gara ohitzen horretara. Antzerkian, akaso, desberdina da, laugarren horma hori hausten ez delako zirkuan kontaktua zuzenagoa da.

**Eta hemendik aurrera, zer?**

Bada, pandemiaren aurretik ekarri genuen karpak txikia libre geratu zaigu; hala ere, salmentarako ez da garai onena. Momentuz, karpak handiarekin mugituko gara batetik bestera. Txikian, berriz, ikastaro batzuk eskaintzeko asmoa dugu; Aste Santuan izan daiteke. Haur, gazte eta heldu asko hurbiltzen zaizkigu guk egiten duguna non ikasi dezaketen galdezka. Badira zirku eskolak, baina akaso, guk gurea sor genezake.

Bestetik, dekoratu berria pentsatzen hasi nahi dut, emanaldi berriak eskaintzen ditugun moduan, ikus-



leek ere irudi edo kolore berriekin topo egin dezaten. Sorpresa txikiak ematen jarraituko dugu.

**Zirkuan bertan ere, Poxpolo izaten jarraitzen duzu.**

**la 30 urte dira pailazo lanetan zabiltzala. Askok, ordea, pailazo izatea aspergarria dela dio-te.**

Hasteko, pailazo batek entrete-nitu egin behar du. Horrez gain, sentimenduak transmititzen jakin behar du, eta horretarako, ahalmen berezia eduki behar du. Pailazo askok esaten dute beraiek pailazo garaikideak di-

rela, ez dutelako barre eginaraztea bilatzen, baina nire ustez horrek ez du zentzurik. Horiek ez dira pailazoak. Pailazo baten saioa ikustera doan edonor, barre egiteko asmoz joaten da. Bestetik, pailazo izateko asko ikasi behar da, eta badira horretan laguntzen duten hainbat teknika.

Ez zait iruditzen pailazo izaten ikasteko zirku eskolak leku egokienak direnik. Haur batek jolastu egin behar du, nahi duen modura, baina jolastu. Adinean aurrera egin ahala, bizi-esperientzia handiagoa izateak, pailazo hobea izateko aukerak handitzen ditu, zer eta nola kontatu, modu desberdinetan egin dezakezulako. Lehen esan bezala, maiz egin izan ditut hanka sartzeak, baina horietatik ere lezio handiak jaso izan ditut, batez ere, beste pailazo batzuegan-dik.

Halaber, gure ofizioan ezinbestekoa da berezkotasuna. Oso garrantzitsua da inprobisatzen jakitea, eta aldi berean, zerbait bat-batean asmatutakoa izan dela ez antzematea. Pailazo izatea bizitzari aurre egiteko izaera bat ere bada. Ez da bateragarria pailazoa izan, eta gero, ofiziotik kanpo, desatsegin hutsa izatea. Horri lotuta, haurrak gustuko izan behar dituzu, eta behintzat, ona eta txintxoia izateko asmoa erakutsi behar duzu.

Bitxikeria modura, azken denboraldi honetako emanaldi batean gertatutakoa kontatuko dizut. Teknikarien ondoan eserita zeuden bi amonak bereganatu zuten nire begirada. Harmailtan haur ugari baziren ere, haiei begira aritu nintzen saio osoan, be-

raientzat bakarrik ariko banintza bezala. Malkotan ikusten nituen, barrez lehertzen, eta zoragarria izan zen. Horrelako uneek betetzen naute gehien.

**Eta nolako da Poxpolo? Iker bezala, nahiko pailazoa?**

Klown askok esaten dute euren pertsonaia erabat desberdina dela. Niretzat, ordea, oso zaila da hori. Poxpoloren azpian Iker Galartza dago, eta Iker Galartzak, batzuetan, ileorde berderik gabe ere, Poxpolorena egiten du. Bat bestearen baitan jaio zen, eta orain, elkarrekin

bizi dira biak. Zein da aldea? Sudur gorriak filtro modura funtzionatzen duela; zenbait muga igarotzen laguntzen du askotan.

**Pailazo izaten ikasteko, ingurura begiratzea garrantzitsua dela diozu. Euskal Herrian badugu horretarako aukera.**

Bai, eta esango nuke bakoitzak bere esparruan bidea egiten jakin duela. Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek, adibidez, haur askoren eredu edo idolo izatea lortu dute, oso maitagarriak direlako. Ikaragarrri ikasi dugu haiengandik, eta oraindik ere, ikasten jarraitzen dugu.

**Zure kasuan, zer lortu duzu ia 30 urteko ibilbide honetan. Zer da pailazo modura jaso duzuna?**

Denetik jaso dut. Lehen aipatutako amona horiek, esaterako, naizen bezala izateko arrazoiak eman zizkidaten. «Zein ederra den egiten ari garena, eta eskerrak hau egiten ari garen», pentsatu izan dut askotan. Pailazogintzak terapia modura funtzionatzen du nirekin; barre egin dut, eta negar malkoren bat ere isuri izan dut. Zoragarria da, barrenak askatzen laguntzen didalako.

**Pailazo izateak gehiago betetzen bazaitu ere, telebistan edota antzerkian ere aritu izan zara. Horietan ere zerbait ikasiko zenuen pailazo modura ikasi ez duzuna, ezta?**

Lan egiteko beste modu bat da. Profesionalagoa? Ez, baina bai desberdina. Lantalde handiagok lan egiten ikasten duzu. Urte mordoia egin ditut telebistan, agian, azken hilabeteetan lan karga txikiagoare-



kin, baina berdin gozaten dut. Pazientzia handi-  
goa eskatzen du, grabaketen kasuan behintzat. Eta  
batez ere, lagun mordoa egin dut. Antzerkian ere  
bai. Akaso, antzerkia eta pailazogintza errazago uz-  
tartu izan ditut.

**Gaur, gainera, 'Lehendakari gaia' antzezlan estrei-  
natuko duzu Zuhaitz Gurrutxagarekin batera.**

Bai. Oso pozik nago, agertokietara proiektu berri bat  
daramagulako. Historia polit bat kontatzen du; nire  
kasuan, gainera, lasaitu ordez, aktibatuta jarraitzeko  
aukera emango dit antzezlan honek.

**Bestetik, Euskal Telebistak estreinatuko duen 'Ira-  
bazi arte' telesailako protagonista izango zara.**

laz, sentsazio kontrajarriak izan nituen telesail ez-

berdinetan. *Etxekoak* telesaila grabatzen asko dis-  
frutatu nuen. *Beti mugan* telesailarekin, ordea, ez  
nuen nahi bezain beste gozatu; zerbait falta zuela  
iruditzen zitzaidan. *Irabazi arte*, berriz, ilusio handiz  
hartutako proiektua izan zen, eta gerora, sentsazio-  
ak ere oso onak izaten ari dira.

Futboleko jokatu nahi duen neska kuadrilla baten  
istorioa kontatzen du, bere eragozpen guztiekin;  
eragozpen errealak, noski. Tartean, entrenatzaile kai-  
ku batekin egiten dute topo. Euren arteko harreman-  
ak jorratuko ditu telesailak. Kasu honetan ere lezio  
handi bat jaso dut. 16-18 urte bitarteko neskez osatu-  
tako kuadrilla batekin aritu naiz lanean, eta telesail-  
an bezala, bizitzan ere dena jateko gosez, ikasteko



eta lan egiteko prest daudela jabetu naiz. Gozatu egin dugu eta zoragarria izan da.

**Asteburu berean, antzezlan bat entseatu, telebistarako grabaketak egin eta zirkuko saioak burutu izan dituzu. Erosoa al da horrela ibiltzea?**

Behin Alkizan geundela, telebistako teknikari batek galdera berdina egin zidan, eta honakoa erantzun nion: «Ofizio honetan, gosez edo lo faltagatik hilko gara. Hil egingo garela jakinda, hobe lo faltagatik hiltzea, gosez hiltzea baino». Oso gogorra da telefonok jotzeko itxaroten egotea. Hala ere, beste momentu batzuetan, batetik zein bestetik jasotzen dituzu deiak, eta denetara heldu nahi izaten duzu. Horrelako egoerak bizitza egokitzen zaigu, eta tartean, asko dira benetan erreta amaitu izan duten aktoreak. Dena hartu nahi izaten dugu, baina maiz ohartu izan naiz dena hartu beharrik ere ez dagoela. Egiten ari zaren hori ahalik eta ondoen egiten saiatu behar duzu, izan ere, ezinezkoa da txapela batekin zortzi buru estaltzea, edota aulki batean zortzi ipurdi batera esertzea.

**Leku guztietan, gainera, euskara eta gaztelania tar-tekatzea egokitu izan zaizu zuri. Zure iritziz zein da une honetan euskal kultur eskaintzaren panorama?**

Nire ustez, aberatsa da. Herritar ugari kexu da ez dagoela eskaintzarik, baina ez da horrela. Badira sortzaileak, kalitate handikoak gainera, euren lanak mimo handiz prestatzen dituztenak. Deitu egin behar zaie, hori da kontua. Ezin gara kanpokoa hobea delakoaren pentsamenduarekin bizi. Etxekoari exijitu egin behar zaio, eta ez pentsa, euskalduna delako barkatu behar zaionik.

Ezagun baten kasua kontatu nahiko nuke. Gidoi bat idatzi du, gaztelaniaz. Oso ondo iruditzen zait, gorputzak hala sortzea eskatu diolako. Baina zertaz jabetu da orain? Euskaraz idatziz gero, diru laguntza jasoko duela. Beharbada, istorio horren kontakizuna hobea da gaztelaniaz, euskaraz baino. Argi dago orain euskaraz idatziz gero, laguntza hori jasotzeko izango dela. Hori iruzur egitea iruditzen zait. Guztiok egiten ditugu tranpak, baina inoiz ez dira gustukoak, eta horrelakoak, are gutxiago.

«Badira sortzaileak; etxekoari exijitu egin behar zaio, eta ez pentsa, euskalduna delako barkatu behar zaionik»

## MOTZEAN

**Pailazo bat?** Fofu.

**Zirku bat?** Hemen aritu izan den italiarra.

**Oholtza edo areto bat?** Gabiriako elizako antzokia; dena horretara moldatu beharra dago.

**Aktore bat?** Clint Eastwood.

**Telesail bat?** Ez naiz telesail zalea. Ez ditut ikusten, engantxatuz gero, denbora horretan joango litzaidakeelako, baina bat aukeratzekotan, *Cobra Kai* aukeratuko nuke.

**Sudur gorriak ala ileorde koloretsuak?** Sudur gorriak, zalantzarik gabe.

**Euskal Herriko euria ala Andaluziako eguzkia?** Bertako euria.

**Pailazo izan ez bazina...** Edozer litzake posible. Albaitaritzak gustuko nuen, baina ez dut uste unibertsitate-ikasketak gainditzeko gai izango nintzakeenik, despistatu eta beste zerbaitekin entretenituko nintzakeelako.

**Eta zerbait behar izatekotan, zer falta du gure herriko kulturak? Kontsumitzaileen inplikazioa areagotzea? Erakundeen laguntzak handitzea?**

Ez nuke jakingo esaten. Komedia ez izan arren, sortutako hori ona bada, kontsumitzaileek behar bezala erantzungo dute. Komediak jendea errazago erakartzen du, baina errespetatu egin behar da.

Iniziatiba falta handia dago gure herrian. Diru laguntzak jaso gabe ere, jarraitu dezagun kalitatezko lanak sortzen, kultura egiten. Zenbat zirriborro joan

ote dira pikutara, sortzaileek proiektuak aurkeztu eta diru laguntzarik jaso ez dutelako. Buruan istorio bat duenak eta kontatzeko gogoia duenak, har dezala hori egiteko denbora, eta egin dezala. Nik jaso izan ditut diru laguntzak, baina horiek gabe jarri izan ditut mar-txan nire proiektu guztiak.



---

Beñat Iraola  
**LOOK**

# ikastolak

HEZKUNTZA ERALDATZEN



Aurrematrikula  
irekia  
urtarrilaren  
17tik 28ra



[www.ikastola.eus](http://www.ikastola.eus)



ikastolenelkartea

# Gabon madarikatuak



**ALEX PADILLA**  
KALEZALE  
AMORRATUA

**I**ritsi ziren bezala, joan dira aurtengo Gabonak ere. Aitortu behar dizuet, urteak pasa ahala, geroz eta gutxiago gustatzen zaizkidala. Beharbada lehen, kanpoan bizi nintzen urte haietan, etxera itzultzearen «mobida» horrek zentzua ematen zien egun magiko haueri. Gaur egun aldiz, goxo-goxo afaldu eta bazkaltzeko egunak bezala ikusten ditut Gabonak. Bai, familian eta

maite dituzun pertsonen inguratuta, baina igandeetan egiten ohi ditugun familia-bazkarien antzeko zerbait.

Zalantzarik gabe aurtengo Gabonak, arraroenak (tristeenak?) izan direla esatera ausartuko nintzateke. Aurreko urtean, 2020an, pandemiaren lehen Gabonak «ospatu» genituen, eta egoera arrotza egin bazitzaigun ere, modu batera edo bestera gainditu genituen. Denontzat ezohiko egoera bat izan zen baina nahiko txukun gainditu genituen.

Aurtengoak aldiz, beldur askorekin ospatu ditugu. Gure guraso eta aitona-amonak ez kutsatzearen beldur horrekin. Gabonak bakarrik igarotzearen beldur. Gure opor edo jai egunak etxetik atera gabe «ospatu» beharraren beldur. Izan ere, ditxosozko Omikron horrek, Gabonak bakardadean eta konfinatuta pasatzea ekarri die herritar askori eta libratu garenok, mesfidantzaz eta 24/7 alertan pasa ditugu egun hauek. Kaka.

Hau gutxi balitz, azken Gabonak triste hasi nituen. Garai hauetan inoiz sentitu ez nuen sentimendu batekin. Bai... triste... Bidean galdu dudaren osabaren falta eta dagoeneko gurean ez dauden pertsona horien falta asko nabaritu dut oraingoan. Zaila... lehendabizikoz, nire etxean ospatzen genituen Gabon zoragarri horiek berriz errepikatuko ez zirela onartzea tokatu zitzaidalako. Gogorra eta konplikatu izan da bai.

Hala ere, egunak pasa ahala konturatu naiz, guraso zein nire anaia-arrebekin janari goxoz beteriko mahai baten inguruan egoteko aukera sekulakoa izan dela. Denok osasuntsu gaudela ikusteak eta hurrengo hilabeteetarako planak egiteko gogo hori dugula ikusteak, zeharo aldatu du Gabon hauen azken txanpa. Bai... Gabon arraroak izan dira, baina hausnarketarako ere balio izan dit, eta hori izan daiteke beharbada, Olentzero eta Mari Domingik aurten egin didaten oparirik berezi eta onena!

Eutsi goiari eta zaindu zaitetzte!

**Gabon arraroak izan dira, baina hausnarketarako ere balio izan dit, eta hori izan daiteke beharbada, Olentzero eta Mari Domingik aurten egin didaten oparirik berezi eta onena!**



**OLATZ  
PEÑAGARIKANO  
IRAZUSTA**

# Aspaldiko partez

**B**erriz gertatu zitzai-zun. Beldur zinen hainbeste denbora aurrez aurre egon gabe zernolako tsunamia sentituko zenuen. Bada ez, ez zintuen olatuak irentsi; kontrara, itsaso barearen dantza nola, halaxe sentitu zinen lagunen konpainian: lasai, sosegatuta, akonpainatuta.

nuen oportetan, bai zera, ez da posible!, pandemia zikin hau bukatuko ahal da behingoz, ustelduko gara oraingoan...».

Etxera nekatuta iritsi zinen, baina erabat beteta. Betiko legez, mundua erdi konpondu nahian ibili zineten, behinolako grinaz, aspaldiko zuek izanda, zuek berrituan, azal berrituan. Bazenekien arren, zenbat estimatzen dituzun berretsi zenuen, eta be-

**Betikoak zineten. [...] Lehenengo agurretik konturatu zineten zenbat sumatzen zenuen euren hutsunea, eta bigarrenengo esaldian barre txikia atera zitzaizun hizkera eta doinu eder horiek berriz entzutean.**

Betikoak zineten. Pentsa, kiloetan ere antzerako, gaztetasunaren zantzuak oraindik azalean, zimurren bat edo beste salbu. Lehenengo agurretik konturatu zinen zenbat sumatzen zenuen euren hutsunea, eta bigarrenengo esaldian barre txikia atera zitzaizun hizkera eta doinu eder horiek berriz entzutean. Zer den euskalkien dotorezia!

Mendian erdi galdu, bazkari apala egin, eta ohiko txolarte luzea izan zenuten: «Zer moduz lanean, non bizi zara orain, hura ez al dabil Madril inguruan eta beste hura ama izan al da, ezetz asmatu zein ikusi

reziki eskertu zenuen hitzordu hura, orain inoiz baino gehiago, azken urte eta erdian garesti samar jarri baitigute maite ditugunekin egotea.

Egia ebidentea da hori aspalditxotik, alferrik egingo diozu kontra barneko kontzientziari. Bai, nekagarria da etengabeen zuzen jokatzeari, eta onar dezagun, emozionalki jota geratzen ari zara/gara. Horregatik hurrengo hitzordua jarrita egin zenuten nork bere etxerako bidea. Irribarrez, egunak emandakoa erreparatuz. Aspaldiko partez, bihotz goxatuta sartu zinen ohera.



**KARLOS LINAZASORO**  
POETA

## Bakean

Bakean daude zaldi urdinak,  
 behorak eta erlojua,  
 bakean bide malkarrean lokatza.  
 Eguzki leuna arratsean.  
 Ezkietan huntza zerurantz  
 eta isiltasunaren lurrina nonahi.  
 Ez nau inork espero hemen,  
 hau ez da nire etxeko lorea.  
 Pago ikaragarri baten itzalera eseri  
 eta koaderno atera dut.  
 Korapilo bat daukat sabelean,  
 buruan nire aurrekoek idatzi zituzten poemak.  
 Nire soak ez du ezer berririk ikusten,  
 dena atzokoa da, zaharra.  
 Ez dago zer izkiriaturik, beraz.  
 Eta, hala ere, begiak itxita,  
 bada zerbait gogo-bahitzen zaituena,  
 epifania ttiki baten errainua,  
 soinu ezdeus baten ezintasuna...





**OIBAR OLANO**  
HARITUZ-EKO KIDEA

## Baserri eta baserritarrei

Gure baserri mattia dute  
Agintariak balia  
Ondo saltzeue, bertako lana  
Laguntzeuela esatia  
Baina egiazko garaian  
Baserria da ahantzia

Esan biar det egia  
Noa galdera itia  
Ze egoera trixtia  
Nola liteke ur bera baino  
Merkego izatia esnia  
Baserriak galtzian alperrik  
Degu negar egitia.

*Baserritar guztiei eskainia.*



# AGENDA

## OSTIRALA URTARRILAK 14

### ANOETA DEATH CAFE

18:00. *Death cafe; heriotzaz hitz egiteko gunea*, gela balioaniztean. Iñaki Arregik, Almaur elkartea, emango ditu azalpenak.

### IBARRA AURKEZPENA

18:00. Lurtaroren aurkezpena. Udaletxe ondoko estalpean.

### TOLOSA KONTZERTUAK

20:30. *Islak*, Mikel Azpiroz, Topic.  
22:00. Keia eta Ramada Inn, Bonberenean.

### ZIZURKIL AURKEZPENA

19:00. Garbiñe Larrearen *Senda-belarrek dakitena* liburu aurkezpena, Iriarte kultur etxean.

## LARUNBATA URTARRILAK 15

### AMEZKETA IKASTAROA

Reiki, Haritz Saez de Nanclares Zabalarekin (659 05 99 35).

### BERASTEGI DOKUMENTAL PROIEKZIOA

18:00. *Bideak* dokumentala Aritz Ganboarekin. Udaletxeko erabileran antzeko gelan.

### TOLOSA ELKARRETARATZEA

12:00. *Gune askeak denontzat; COVID paserik ez* leloarekin elkarretaratzea Biziplazak deituta, Trianguloan.

### KONTZERTUAK

18:30. Kup taldearen kontzertua, *Maiteagoak* Xabier Sarasola. Gabriel Baltiesek zuzenduta. Topic.  
22:00. Giranice eta Kaskezur taldearen kontzertua, Bonberenean.

## IGANDEA URTARRILAK 16

### AMASA-VILLABONA ANTZERKIA

19:30. *Lehendakari gaia* antzez-lana. Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga aktoreek parte hartzen dute. Gurea antzokian.

### BERASTEGI LIBURU AURKEZPENA

12:00. *Be! Berastegi. Belarra*. Beee liburuaren aurkezpena, udaletxeko erabilera anitzeko gelan.  
**Ondoren.** Bazkaria, liburuko parte hartzaileekin.

### TOLOSA MENDI IRTEERA

08:00. Oargi mendi elkarteak Txindoki mendira irteera antolatu du. [oargimendi@gmail.com](mailto:oargimendi@gmail.com).  
**ANTZERKIA**

18:30. *Lur* antzez-lana, Xake Produzioen eskutik, Topic-en

## ASTELEHENA URTARRILAK 17

### BERASTEGI SAN ANTON EGUNA

10:00. Meza, San Anton ermitan.  
**Ondoren.** Hamaietakoa.

### TOLOSA ODOL EMATEA

16:30-20:30. Hitzordua hartzeko egunean goizez deitu beharko da (943 00 78 92). Kultur etxean.

## ZINEMA



### BLACK BOX

Larunbata (19:00) eta igandea (21:30).  
**Tolosa, Leidor.**



### EL LODO

Larunbata (19:30) eta astelehena (20:30).  
**Amasa-Villabona, Gurea.**



### CERCA DE TI

Larunbata (21:30), igandea (19:00) eta astelehena (19:00).  
**Tolosa, Leidor.**



### KLARA Y LA NAVIDAD

### EN LA GRANJA

Igandea (17:00).  
**Tolosa, Leidor.**



ikasteko  
grina  
sortuz

# Aiztondoko eskola publikoa

Aurrematrikulazio epea zabalik  
Urtarrilaren 17tik 28ra



# IRAGARRI HEMEN ETA ESKUALDEAK BUELTATUKO DIZU

## JARRI ZURE IRAGARKIA ATARIAN

publi@ataria.eus / 661 678 818

\* Atarikideentzat eskaintza bereziak

\* Itzulpena eta diseinua doan



Topic zentroan izango da gaur Mikel Azpiroz. **ATARIA**

## «Pianoa da melodiak azalertzeko dudan tresna»

**MIKEL AZPIROZ**  
MUSIKARIA

'Gaua' diskoarekin 2013an hasitako bidea borobildu du musikari donostiarrak 'Islak' lanarekin. Gaur eskainiko du kontzertua Tolosako Topic zentroan 20:30etik aurrera. Emanaldi intimista eta lasaia eskainiko du, giro jakin bat sortzen saiatzen baita musikaria kontzertuetan.

### **Iñigo Terradillos Gaztañaga**

Elkano Browning Cream hirukoaren blues, rhythm and blues, soul eta rock doinuekin jarraitzen du Mikel Azpirozek (Donostia, 1971). Baina badu proiektu propioa ere eta hori taularatuko du gaur Topic-en. Pianoarekin bakarka jolasten hasi zen 2013an *Gaua* lanarekin, 2016an *Zuri* iritsi zen eta orain *Islak*.

### **Tolosan bakarka ariko zaren lehen aldia izango da gaurkoa, ezta?**

Bai, Elkano Browning Cream taldearekin izan gara Tolosan, blues jaialdian izan ginen, baina ez bakarka. Berezia izango da, taldekideetako bat, Karlos Aranzegi, tolosarra da gainera. Karlosen mailako musika-

riak ez dira sarritan aurkitzen, eta Tolosak suertea dauka Karlos bat sortu duelako. Karlos taldekidea da diskoan bateria grabatu zuen eta diskoa aurkezteko egiten ari garen emanaldietan ere ari da.

**Bi proiektu dituzu beraz, eskuartean.**

Bi proiektu ditut bai. Elkano Browing Cream proiektua eta nire pianoarekin dudan bakarkako proiektu hau. Hirugarren diskoa da *Islak*, 2020 bukaeran aurkeztu genuen. 2013an *Gaua* atera genuen, 2016an *Zuri* eta 2020an *Islak*. Oso proposamen introspektibo eta intimista da, lasaia. Tartean kontu espirituala dagoela esango nuke ere. Kontzertuak modu akustikoan egiten ditugu, estilo klasikoan pianoarekin, kontrabaxuarekin eta bateriarekin. Disko hau leku askotan ari gara aurkezten, suerte itzela izaten ari gara.

**Eta nolako harrera izaten ari zarete?**

Oso ona, oso pozik gaude. Pianoarekin bakarka hasi nintzenez 2013an, oso proposamen ez komertziala zela pentsatu nuen, oso lasaia delako eta intimista delako, bildua. Bizi garen garai ero, frenetiko, azkar eta hotsez betetako honetan, honentzako tartea aurkitzea zaila izango zela pentsatu nuen; baina nire sorpresa izan da jendeak geroz eta gehiago behar duela horrelako tartea. Jendea geldiune moduko batean sartzen da musika honekin, musika geldo horretan.

**Zer entzun ahal izango da gaurko kontzertuan?**

*Islak* diskoa ia osorik joko dugu, eta baita *Gaua* eta *Zuritik* abesti batzuk ere. Kontzertu osoa segidan da,

«‘Islak’ oso proposamen introspektibo eta intimista da, lasaia. Kontzertuak modu akustikoan egiten ditugu»

geldiunerik gabe. Publikoari esaten diot abestiak bata besteari lotuta joko ditugula, txalorik gabe, eta horrela sortzen den giroa proposamenaren elementu oso garrantzitsua da. Giro hori sortzeko aproposa da oso geldiunerik gabe jotzea, jendea musikan sakonago sartu dadin. Horrela es-

perimentatzen dugu kontzertu bakoitzean.

**Ez komertziala kontzertua eskaintzeko moduagatik, musika pausatua delako eta baita jazz eta bluesa ez delako horren komertziala ere.**

Beti dira estilo minoritarioak, eta gainera proposamen hau hizkuntza musikal pertsonalarekin eginda dago, jazz eta blues elementuak, musika klasikoaren elementuak... guztiak nire musika hizkuntzaren parte dira. Ez dut etiketatan sinesten, nik sinesten dut musikaren konexio ahalmenean, eta gure kontzertu hauetan baieztatu ahal izan dut gure musikak baduela konexio hori. Entzuleriaren arimarekin

konexio zuzen bat lortzen dugu eta horrek pozten nau gehien. Uste nuen proposamen hau ez zela maitatua izango, baina jendeak badu oraindik ahalmen hori proposamen sakonago honetan sartzeko. Alde horretatik oso pozik gaude. Jendeak behar du patxada eta lasaitasuna. Eta baita sakontasuna ere, azaletik barrurago dauden proposamenak nahi ditu jendeak.

**Nola konturatzen zara publikoari dela proposamenean**

**sartzen?**

Segituan nabaritzen da. Sortzen den isiltasunarekin, sortzen den giro isil, ilun eta sakonarekin... Kontra-



koa balitz ere konturatuko ginateke, hitz egiten hasten direlako eta abar.

### **Noiz etortzen zaio bati bakarka ekiteko unea?**

Heldutasun batera iristen hasi nintzenean konturatu nintzen ni. Ez dakit inoiz iristen garen erabateko heldutasunera, baina nolabaiteko heldutasunera iristean konturatu nintzen hori zela momentua. Bene-

tan zerbait esateko nuenean animatu nintzen lehen bakarkako diskoa egitera. Musikarientzat zailena da hizkuntza propioa egitea, besteengatik bereiziko zaituen zerbait lortzea, eta puntu horretara gerturatzeko ari nintzela animatu nintzen pianoarekin *Gaua* argitaratzera.

### **Hirugarren lana da 'Islak', egongo da nolabaiteko garapena.**

«Abestiak bata besteari lotuta joko ditugu, txalorik gabe. Sortzen den giroa proposamenaren elementu garrantzitsua da»

Sortzeko beharra nuen eta horri erantzuten saiatzen naiz. Elkanorekin taldeak edo proiektuak beste esparru bat betetzen dit, sorkuntza esparru bat, ludikoagoa... Aldiz pianoarekin uztartzen dudana estilo lasaiago honek beste esparru bat betetzen dit. Desberdinak dira, baina baita bateragarriak dira, biek betetzen dute sortzeko behar hori;

bat mugituagoa da eta bestea lasaiagoa.

### **Zer da pianoa zuretzat?**

Ez da erraza hitzekin esatea, abstraktua da. Konexio tresna bat da niretzat. Ahots moduko bat, gizakiok konektatzeko dugun lehen elementua ahotsa da, baina suertez badaude gehiago eta pianoa da horietako bat. Pianoa da melodiak azaleratzeko dudana tresna. Entzuleriarekin konexioa lortu nahi dut horrela.



# ATARIA BERTSO JAIALDIA 2022



Urtarrilak 22,  
larunbata, 18:00etan,  
Tolosako Leidor  
antzokian

Oihana Iguaran  
Maialen Lujanbio  
Ametz Arzallus  
Andoni Egaña  
Nerea Ibarzabal  
Iker Zubeldia

Gai jartzailea:  
Amaia Agirre

Antolatzaileak:

 **ataria**



HARITUZ



galtzaundi

Babeslea:



TOLOSA



**IKER IBARLUZEA**  
EGURALDI ADITUA

# EGURALDIA

## OSTIRALA

Giro eguzkitsua. Goiza hotz baten ostean eta behe-lainoa jaso eta gero, zeru urdina eta eguraldi eguzkitsua izango dugu egun osoz. Haizeak aldakor eta ahul joko du eta tenperaturan ez da aldaketa handirik izango, non balio altuenek 10-12 gradutan joko duten goia.

## LARUNBATA

Eguraldi egonkorrekin jarraituko dugu. Goiza oso hotza izango da, non izotza agertuko den txoko gehienetan. Behe-lainoa ere agertuko da, baina goiz erdi-eguerdirako jasoko du eta zeru urdina nagusituko zaigu. Haizeak hego ukitua izango du eta tenperatura antzeko balioetan mugituko da, 10-12 gradutan joaz goia.

## IGANDEA

Antzeko giroa izango dugu. Goiza berriz ere oso hotza izango da eta behe-lainoa presente izango da. Behin behe-laino hau jaso ostean, zeruan urdina nagusituko da eta eguraldi eguzkitsua izango dugu. Haizea aldakor eta ahul ibiliko da eta tenperatura ez da 10-12 gradutik pasako.

## ASTELEHENA

Giro lasaia. Goiza zertxobait epe-lagoa izango da eta hodei batzuk ere agertuko dira, baina eguerdirako eguzkiak xurgatuko ditu eta eguraldi eguzkitsua izango da arratsaldean. Tenperaturak behe-  
ra egingo du eta nekez gairatuko dira 8-9 graduak.

## ZERBITZUAK

# ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberririk...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20  
Tolosa

### Prezioa

15,50€

45€

51€

### Atarikideek

12€

33€

38€

*Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez*

## FARMAZIAK

ABENDUAK 14, OSTIRALA  
**TOLOSA**

**Egunekoa.** Lourdes Azpiroz Galarza.  
Larramendi, 6.  
943 67 51 18.

URTARRILAK 15, LARUNBATA  
**TOLOSA**

**Egunekoa.** Iñaki Olarreaga Aranburu.  
Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

URTARRILAK 16, IGANDEA  
**TOLOSA**

**Egunekoa.** Maria Jose Santamaria.  
Nafarroa etorbidea, 2.  
943 65 46 10.

URTARRILAK 17, ASTELEHENA  
**TOLOSA**

**Egunekoa.** Cecilia Bronte Posada.  
Korreo kalea, 20.  
943 67 60 13.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO  
FARMAZIA: TOLOSA.**

**LEIRE ANDRES MORANT.  
ZABALARRETA, 1. 943 67 38 49.**



# ABIATUrekin, askoz gehiago!

## A-636 Beasain-Bergara autobian ere bai.

**Urtarrilaren 18an** jartzen da abian **A-636 Beasain-Bergara** autobiaiko bidesari berria.

Ibilgailu guztiek nahitaez ordaindu beharko dute, motozikletek izan ezik. Bidesaria **FREE FLOW** sistema bidez, hau da, matrikula irakurtzeko arku bidez kudeatuko da.

Gipuzkoan bizi diren autobiaaren erabiltzaileentzat aukerarik onena **BIDEGIren ABIATU** gailua edukitzea da. Gainerakoentzat, nahikoa izango da edozein VIA-T gailu edukitzea.



✓ **AURREZPEN  
HANDIAGOA  
(ABIATUrekin soilik)**

Tartekako deskontuak.  
Hileko gehieneko gastua.

✓ **INBERTSIO  
HANDIAGOA**

Bildutako dirua  
errepidea hobetzeko eta  
mantentzeko erabiliko da.

[www.bidegi.eu](http://www.bidegi.eu) 

☎ 943 105 106  
✉ [info@bidegi.eu](mailto:info@bidegi.eu)

AURREMATRIKULA IREKIA URTARRILAREN 17TIK 28RA



# TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

ESKOLA EUSKALDUNA, INTEGRATZAILEA ETA BIZIA

ZATOZ  
SAMANIEGO  
BISITAZERA

*Eskaneatu QR kodea  
eta hitzartu zurea*



0-18 urte bitarteko heziketa eskaintza publikoa

Informazioa  
[samaniego-tolosa.hezkuntza.net](http://samaniego-tolosa.hezkuntza.net)  
943 651 063 / 688 867 570